



ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOEN ERREGISTROARI **BURUZKO INFORMAZIO OHARRA**

Gaia: Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren kopia osatu behar duten dokumentuen inguruko azalpena. Jabeek udalean aurkeztu beharko dituzte, erregistratzeko.

2018ko irailaren 5ean, [117/2018 DEKRETUA](#), [uztailaren 24koa](#), [Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinaren ikuskapen teknikoari buruzkoa](#) argitaratu zen (171. zenbakidun EHAA) eta irailaren 6an jarri zen indarrean. Gainera, arau horrek orain arte arlo horretan indarrean zegoen araudia indargabetu du.

Dekretu horren 6. artikulua ezarritakoarekin bat, Eraikinaren Ikuskapen Teknikoak bi zati ditu: batetik, eraikinaren jabeak bete beharreko galdera-sorta bat; bestetik, dekretu horren ondorengo artikuluek zehazten duten informazioa jasotzen duen txosten bat. Bi zati horiek Eusko Jaurilaritzak argitaratutako EITri buruzko aplikazio informatikoaren eta bere eguneratzeen bidez gauzatuko dira.

Aplikazio hori www.euskoregite.eus web-orrian dago eskuragarri, zehazki, "ikuskarientzako tresna informatikoa" atalean.

2018ko apirilaren 9tik aurrera, [EAEko EIT programa informatikoa](#)ren 3.0 bertsio berria deskargatu ahal da. Hori EITa egingo duten teknikarientzat da. Programaren aurreko bertsioa (b 2.7) 3.0 bertsio berriarekin batera existituko da, 2018ko abenduaren 31ra arte. Hortik aurrera, 3.0 bertsioa baino ezin izango da deskargatu.

Era berean, 117/2018 Dekretuak ezarritakoarekin bat, jabeak, bere kabuz edo bere ordezkariaren bitartez, dagokion udalean aurkeztu beharko du Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren **kopia** bat (9.3 eta 12.4 artikulua). Eta udalek aurkezten diren dokumentuei erregistroa eman beharko diete (12.5 artikulua).

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, prozesu hau guztia elektronikoki kudeatze aldera, hasia da gure erkidegoan EIT plataforma berri bat lantzen. Plataforma berri hori martxan egon arte, uste da ez dagoela aldaketarik eraikinaren ikuskapen teknikoak idatzi eta aurkezteko orain arte burututako operatibari dagokionez.

Horregatik, honako hau JAKINARAZTEN DUGU:

Dagokion udalean aurkeztu beharreko Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren zein Zuzenketa-ziurtagirien kopia honako hauek osatuko dute:

- Formatu digitalean, Eusko Jaurilaritzak sortutako EITri buruzko aplikazio informatikoaren bidezko esportazioan sortutako **.zip fitxategia** erantsita. Eta
- **Pdf formatuan**, ikuspenean jasotako eduki osoa bilduta, EITri erantsitako dokumentuak barne (aplikazioak zuzenean sortzen ez dituenak).

Udal bakoitzak adieraziko du ea telematikoki jaso ahal dituen horrelako dokumentuak.

Argitu beharra dago ikuskapen-prosezu hau biribiltzeko dagokion udalean eta **II. eranskineko eredia** baliatuta **Erabilera eta Mantentze Plana** dagoela egiaztatu behar dela. Dokumentu hori edozein jabeak edo erabiltzailek zein administrazioek izango dute eskuragarri, paperean zein formatu digitalean; gainera, behar bezala eguneratu beharko da (15. eta 16. artikulua).

Egiaztatze hori egingo da, baldin eta:

- EITak ez baditu I., II. eta III. mailak zehaztu, udalean EITa aurkeztu eta hiru hilabete igarotakoan.
- Zuzendu beharrekoak badaude, zuzenketa-ziurtagiriarekin bat (azken zuzenketa-ziurtagiria aurkezten denean izango dela ulertzen da, zuzenketak hainbat fasetan egiten badira, hau da, I., II. eta III. maila guztiak zuzendu ondoren).

Vitoria-Gasteizen, 2018ko irailaren 11n